

5. ARTIKULUA

Batxilergoko etaparen ezaugarri orokorrak

- Batxilergoa honako printzipio hauen arabera antolatuta dago:
 - Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako graduatu-titulua dutenek egin ditzakete Batxilergoko ikasketak, edo Lanbide Heziketako edo Arte Plastikoetako eta Diseinuko teknikariaren edo goi-mailako teknikariaren titulua dutenek, edo Kiroletako teknikariaren edo goi-mailako teknikariaren titulua dutenek.
1. Batxilergoko etapak bi maila ditu: Batxilergoko 1. eta 2. mailak.
 2. Ikasleek lau urte eman ditzakete, jarraian edo ez, Batxilergoa araubide arruntean egiten.
 3. Hezkuntzaren arloko eskumena duen sailak Batxilergoko plaza publikoen eskaintza pixkanaka handitzea sustatuko du, haren modalitate eta adar guztietan.
 4. Batxilergoko etapan garapen pertsonalaren, familiarraren, soziokulturalaren, akademikoaren eta profesionalaren esparruekin erlazionatutako alderdiak landu behar dira.
 5. Irakasle guztiak hezitzaileak dira, eta modu bateratu eta koordinatuan lan egiten dute, dagokien curriculum-ikasgaitik abiatuta, hezkuntzaren ardura partekatzen dutenekin –nagusiki, familiarekin edo legezko tutoreekin– lankidetzan jardunez, baita instantzia eta eragile sozializatzaileekin eta hezkuntzakoekin ere.
 6. Ikastetxeek, ikasleak onartzeko araudiaren arabera, aukera-berdintasuna sustatu behar dute eskolaratzean eta eskolako ibilbidean. Horretarako, ikasle guztiei hezkuntza-aukera berak eskainiko dizkiete, eta diskriminazio positiboko neurri inklusiboak hartu behar dituzte desabantaila ekonomiko, sozial, kultural edo pertsonalak dituztenen alde, hezkuntza-prozesuan laguntzeko eta eskola-porrotari aurrea hartzeko
 7. Batxilergoko ikasgaiak curriculumean euskal kulturaren eta hezkuntzaren dimentsio espezifikoak txertatu behar dute eta funtsezko kompetentzia guztiak garatzen lagundu.